



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2016ICGO0009

Eguna: 2016/10/19

Ordua: 13:30 – 14:00

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- | | |
|--------------------------------|-----------------------|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

- | | |
|---|---------|
| -Jesus M ^a Santos Anabitarte | EAJ-PNV |
|---|---------|

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko urriaren 11ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 11 de octubre de 2016.
Stua, S.A. eta Minusmore, S.L.k Borondatezko errepartzelazioan aldaketa. Aurkeztutako proposamenari txosten teknikoa eta juridikoa.	2	Stua, S.A. y Minusmore, S.L. Modificación del proyecto de reparcelación. Informe técnico y jurídico a la nueva poropuesta planteada.
Aqualdre, S.L.. Astigarragako Ergobian Ibilbidean dagoen a.2/VL-3 unitatean, 80 bizitegi, lokalak eta garajetarako obra-baimena.	3	Aqualdre, S.L. Licencia de obras para la Construcción de 80 viviendas, locales y garajes en la parcela a.2/VL-3 en Ergobia Ibilbidea.
Dastatzen S.L. Troia Ibilbidea 21ean Pabilioi batetarako Oinarrizko Proiektu obra-baimena.	4	Dastatzen S.L. Licencia de obras para construcción de pabellón en Troia Ibilbidea 21.
Kontxa Etxeberria Plazako 7-8-9 atariko eraikuntzaren lehen erabilera baimenaren inguruko uztailaren 6ko 702/2016 Dekretua berrestea.	5	Ratificar el Decreto 702/2016 de 6 de julio sobre primera utilización del bloque edificado en Kontxa Etxeberria Plaza 7-8-9 (a.2/VL-2).
Adingabeentzat prebentzio eta arreta zerbitzuaren kontratua luzatzea.	6	Prorroga del contrato del servicio de asistencia y prevención de menores.
Eskaeriak eta galderak	7	Información, ruegos y preguntas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

Bidebitarte 9-10 partzelan pabilioi industrial bat eraikitzeko obra-baimena premiaz gai zerrendan sartzea eskatu du alkate ordeak.

Proposamena bozkatu eta aho batez onartu da.

La teniente de alcalde solicita la inclusión urgente en el orden del día la licencia de obra para la construcción de un pabellón industrial en las parcelas 9-10 de Bidebitarte.

Se procede a votar la propuesta, la cual se aprueba por unanimidad.

1.- 2016ko urriaren 11ko aktaren onarpena.

Akta aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 11 de octubre de 2016.

El acta se aprueba por unanimidad.

2.- Stua, S.A. eta Minusmore, S.L.k borondatezko errepartzelazioan aldaketa. Aurkeztutako proposamenari txosten teknikoa eta juridikoa.

Alkate ordeak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2016ko ekainaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordean behin betiko izaeraz onartutako Bidebitarteko 9-10 partzeleko Borondatezko birzaketaren 3. erabakiko hirugarren atalean onartutakoa efekturik gabe uztea.

Bigarrena.- Eremu berde eta berdeguneen lur zoru erreserban lagatu beharreko 793,92 m²tako lagapena, udal arkitektoak bere txostenean 139.777,56€tan baloratutakoarekin ordezkatzeta.

Hirugarrena.- Aipatutako kopurua udal obra baimena eman aurretik ordaindu beharko da.

Laugarrena.- Hartutako erabakien berri Minusmore, S.L. eta Stua, S.A. enpresei jakinaraztea.

Irizpena aho batez onartu da.

2.- Stua, S.A. y Minusmore, S.L. Modificación del proyecto de reparcelación. Informe técnico y jurídico a la nueva propuesta planteada.

La teniente de alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Primero.- Dejar sin efecto la condición establecida en el apartado 3º del tercero de los acuerdos adoptados por la junta de Gobierno Local, de fecha 20 de junio de 2016, en virtud del cual se aprobó definitivamente la Reparcelación Voluntaria del subámbito 3 parcela 9-10 Stua, S.A.

Segundo.- Sustituir la cesión de los 793,92 m² de superficie de cesión de reserva de suelo para zonas verdes y espacios verdes por una compensación económica valorada en base al informe del arquitecto municipal y que asciende a la cantidad de 139.777,56€.

Tercero.- Dicha cuantía deberá ser abonada con carácter previo a la concesión de la licencia de edificación.

Cuarto.- Notificar el acuerdo adoptado a Stua, S.A. y a Minusmore, S.L.

El dictamen se ha aprobado por unanimidad.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

3.- Aqualdre, S.L. Astigarragako Ergobian Ibilbidean dagoen a.2/VL-3 unitatean 80 bizitegi, lokalak eta garajetarako obra-baimena.

Alkate ordeak hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu da onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Ergobia Ibilbidea HEA 9an dagoen a.2/VL-3 lursailean 80 etxebizitza, lokalak eta garajeak eraikitzeko obra baimena ematea Aqualdre, S.L. enpresari.

Bigarrena.- Urriaren 13ko 1007/2016 Dekretuan ebatzitako obrak geratze agindua bertan behera uztea.

Alkate ordeak hirigintza-baimenak egintza arautuak direnez, zinegotziak abstenitzerik duten galdetu du, eta udal-idazkariak baietz erantzun dio.

Jarraian Andoni zinegotziak hartu du hitza eta prentsan egun berean gobernu taldeak argitaratukoa gezurtzat jo du, eta zuzenean bere liraintzen duela esan eta bere haserrea erakutsi du.

Horrek bi zinegotzien arteko eztabaida eragin du, alkate ordeak salaketa intenzionalitatearekin sartu izana leporatu dio eta adierazi, zinegotziak ez duela kasu guztietan neurri berdinak erabiltzen eta ez zutela baimena eman nahi. Andoni zinegotziaren hitzetan, berriz, ez zen gai zerrendan sartzeko eskaerarik egin, eta gainera txosten juridikoa falta zen.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du baimena gai-zerrendan sartzea ez zela bozkatu, eta baita baimena emateko txostena falta zela. Gainera komentatu du berak esan zuela "ad hoc" bilkurak ezin zirela antolatu.

Zorione zinegotziak argitu du salaketa asteartean aurkeztu zela, egun horretan eskatu zuela beharrezko ziren izapideak ematea, eta obra ostiralean gelditu zela.

3.- Aqualdre, S.L. Licencia de obras para la construcción de 80 viviendas, locales y garajes en la parcela a.2/VL-3 en Ergobia Ibilbidea.

La teniente de alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Primero.- Conceder licencia de obras a Aqualdre, S.L. para la construcción de 80 viviendas, locales y garajes en la parcela a.2/VL-3 del A.I.U. 9 "Ergobia Ibilbidea".

Segundo.- Levantar la paralización ordenada por Decreto 1007/2016, de 13 de octubre.

La teniente de alcalde pregunta si las/los concejales pueden abstenerse, considerando que las licencias urbanísticas son actos regulados, a lo que la secretaria municipal responde que sí.

Seguidamente toma la palabra el concejal Andoni y señala que lo publicado por el gobierno municipal en la prensa de este día es falso, añadiendo que le insultan directamente a él y ha mostrando su enfado por ello.

Ello ha provocado una discusión entre dos concejales, la teniente de alcalde le reprocha haber incluido la denuncia con intencionalidad, señalándole que el concejal no utiliza las mismas medidas en todos los casos, y que no querían dar la licencia. En cambio, en opinión del concejal Andoni no se realizó ninguna solicitud para su inclusión en el orden del día, y además faltaba el informe jurídico.

El concejal Mikel toma la palabra para señalar que la inclusión de la licencia en el orden del día no se votó, así como que faltaba el informe para la concesión del permiso. Comenta además que él mismo señaló que no pueden convocar comisiones "ad hoc".

La concejal Zorione aclara que la denuncia fue presentada el martes, que ese mismo día solicitó la apertura de los trámites necesarios, y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Andoni zinegotziak bere taldea abstenitu egingo dela aurreratu du, hirigintza-hitzarmenaren arabera udalak 40 etxebizitza eskuratzeko aurkera duelako, eta baimenean ez delako horren inguruko ezer adierazten.

Jarraian irizpena bozkatu da eta onartu, 2 aldeko botoekin (1 EAJ-PNV eta 1 Euskadiko Sozialistak) eta 2 abstentzioekin (EHBildu)

4.- Dastatzen, S.L. Troia Ibilbidea 21ean pabilioi batetarako Oinarrizko Proiektu obra-baimena.

Alkate ordeak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Atal bakarra.- Dastatzen S.L. enpresari eskatutako obra baimena ematea, Troia Ibilbidea 21ean (P.1 partzelan) pabilioi bat eraikitzeko.

Irizpena aho batez onartu da.

5.- Kontxa Etxeberria Plazako 7-8-9 atariko eraikuntzaren lehen erabilera baimenaren inguruko uztailaren 6ko 702/2016 Dekretua berrestea.

Alkate ordeak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Kontxa Etxeberria Plazako 7-8-9 atariko eraikuntzaren lehen erabilera baimenaren inguruko, uztailaren 6ko 702/2016 Dekretua berrestea.

Irizpena aho batez onartu da.

6.- Adingabeentzat prebentzio eta arreta zerbitzuaren kontratua luzatzea.

Adingabeentzat prebentzio eta arreta zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzeko, Gizarte laguntzailearen txostena aurkeztu da

que la obra se detuvo el viernes.

El concejal Andoni adelanta que su grupo se va a abstener, ya que según el convenio urbanístico el ayuntamiento puede adquirir 40 viviendas, y que el permiso no señala nada en ese sentido.

Seguidamente se procede a la votación y el dictamen queda aprobado, con 2 votos favorables (1 de EAJ-PNV y 1 de los Socialistas Vascos) y 2 abstenciones (EHBildu).

4.- Dastatzen, S.L. Licencia de obras para construcción de pabellón en Troia Ibilbidea 21.

La teniente de alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Apartado único.- Autorizar a la empresa Dastatzen S.L. licencia de obras para edificar un pabellón industrial en Troia Ibilbidea 21 (parcela P.1).

El dictamen se ha aprobado por unanimidad.

5.- Ratificar el Decreto 702/2016 de 6 de julio sobre primera utilización del bloque edificado en Kontxa Etxeberria Plaza 7-8-9 (a.2/VL-2).

La teniente de alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Ratificar el Decreto 702/2016, de 6 de julio, por el que se autorizó a Britac Proyectos, S.L., licencia de primera utilización al edificio de viviendas construido en Kontxa Etxeberria 7-8-9 (parcela a.2/VL-2).

El dictamen se ha aprobado por unanimidad.

6.- Prórroga del contrato del servicio de asistencia y prevención de menores.

Se ha presentado, para su aprobación, el informe de la asistenta social para prorrogar por un año el contrato del servicio de asistencia y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

aurkeztu da onartua izan dadin.

Kontratoa urte betez luzatzeko, txostena, aho batez onartu da.

7.- Stua, S.A. eta Minusmore, S.L.k Bidebitarteko 9-10 Partzelan pabiloi industrial bat eraikitzeko obra-baimena.

Alkate ordeak arkitektoaren eta udal aholkulari juridikoaren txostenen berri eman eta hiru akordio hauek hartzea eskatu du.

Lehena.- Obra baimen baldintzatua ematea. Hirigintza-lizentzia kudeaketa baldintzak betetzera eta udal arkitektoaren urriaren 18ko txostenean adierazitako agiri osagarriak ekartzera baldintzatzen da

Bigarrena.- Jakinaraztea hirigintza-baimena ez dela indarrean sartuko, hau da, ez duela balio juridikorik edukiko eta ondorioz ezin direla obras hasi, Borondatzeko Birzatiketa Proiektuaren baitan eta 123/2012 estandarretako dekretuari jarraiki, eremu berde eta berdeguneetan jaso beharreko lur lagapena eskudirutan ordaindu arte, hau da, udal arkitektoaren baloraketa txostean jasotako 139.777,56 € ordaindu arte.

Hirugarrena.- Jakinaraztea 2016ko ekainaren 20ko tokiko gobernu batzordeak hartutako akordioaren arabera – enpresa berak ekainaren 2an idatziz egindako eskaerari jarraiki hartua – udalari dagokion eraikigarritasunaren lagapenaren %15ari dagokion zenbateko guztiaren ordainketa lizentzia honekin egin beharko dela.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du arkitektoaren txostenean akats bat dagoela, eta horren berri batzordea baino lehen udal-idazkariari eman diola. Gaineratu du, horrelakoak gertatzea normala dela, eta horregatik ezin direla baimenak eman txostenik gabe, arduraz jokatu behar baita.

prevención de menores.

El informe, para la prórroga del contrato, se ha aprobado por unanimidad.

7.- Stua, S.A. y Minusmore, S.L. Licencia de obras para la construcción de un pabellón industrial en la Parcela 9-10 de Bidebitarte.

La teniente de alcalde presenta los informes del arquitecto y la asesora jurídica municipal y pide que se adopten los siguientes 3 acuerdos:

Primero.- Conceder licencia de obra condicionada, al cumplimiento de las condiciones de gestión y a presentar la documentación complementaria exigida en el informe del arquitecto municipal de fecha 18 de octubre.

Segundo.- Apercibir que la licencia no tendrá validez, y en consecuencia, no podrán iniciarse las obras, hasta pagar en metálico la cesión de reserva de suelo para zonas verdes y espacios verdes, a abonar en base al Proyecto de Reparcelación Voluntaria y del Decreto 123/2012 de estándares; es decir, abonar en metálico los 139.777,56 € que se recogen en el informe de valoración del técnico municipal.

Tercero.- Notificar que en virtud del acuerdo adoptado en la junta de gobierno local de 20 de junio de 2016 – a petición por escrito de la propia mercantil con fecha 2 de junio – el abono de la totalidad de la cuantía correspondiente al 15% de la cesión de la edificabilidad urbanística que corresponde el Ayuntamiento se deberá realizar con la concesión de esta licencia.

Toma la palabra el concejal Andoni para señalar que en el informe del arquitecto se ha detectado un error, que ha comunicado a la secretaria municipal antes de la comisión. Añade que le parece normal que sucedan cosas así, por lo que no se pueden conceder licencias sin un informe previo, pues hay que actuar con responsabilidad.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkate ordeak kasu honetan baimena emateko aukera eman duela erantzun dio zinegotziari, ez aurrekoan bezala.

Jarraian irizpena bozkatu da, eta aho batez onartu da.

La teniente de alcalde le responde al concejal que en esta ocasión ha permitido la concesión de la licencia, no como la vez anterior.

A continuación, se procede a la votación, y el dictamen queda aprobado por unanimidad.

8.- Eskariak eta galderak

a.- Puntu morea

Andoni zinegotziak adierazi du arratsaldean puntu morearen inguruko ekitaldi bat dagoela, baina ez dela batzorderik egin eta ez zaiela informazioarik eman. Gainera, adierazi du kaleratu den eskuorria ez duela udalaren logoa eta ez zaiola oso itxurosoa iruditzen.

b.- Irisgarritasun plana

Andoni zinegotziak komentatu du Noticias de Gipuzkoa eta Kronika egunkarien bidez jakin dutela udalak irisgarritasun-plana onartu duela. Gaineratu du egunkari horietan gobernu taldearen ekimena dela adierazten dela, baina aurrekontuan sartzeko eskaera Euskadiko Sozialistak eta beraiek egin zutela, bi alderdiek aurrekontuari aurkeztutako emendakinetan.

Zorione zinegotziak argitu dio udalak ez duela oraindik plana onartu.

c.- Zaborra

EHBildu taldekoek jakinarazi dute Kontxa Etxeberria 7, 8 eta 9 atarien inguruan berriro ere zaborra azaldu dela, etxejabe horiek zaborrentzako gela dutenean eta bertan zabor-educiontzia.

8.- Información, ruegos y preguntas

a.- Puntu morado

El concejal Andoni señala que por la tarde se ha organizado un acto relativo al punto morado, pero que no se ha convocado la comisión y no se les ha remitido información. Señala además que en el folleto no figura el escudo del Ayuntamiento y que además, no les ha parecido muy atractivo.

b.- Plan de accesibilidad

El concejal Andoni comenta que se han enterado por Noticias de Gipuzkoa y Kronika que el ayuntamiento ha aprobado el plan de accesibilidad. Añade además que dichos periódicos señalaban que se trataba de una iniciativa del grupo de gobierno, cuando la solicitud de su inclusión en el presupuesto fue realizada por el grupo Socialistas Vascos y por ellos mismos, a través de las enmiendas presentadas al presupuesto por esas dos formaciones.

La concejal Zorione le aclara que el ayuntamiento todavía no ha aprobado el plan.

c.- Basura

Los integrantes del grupo EHBildu señalan que una vez más ha vuelto a aparecer basura junto a los portales 7, 8 y 9 de Kontxa Etxeberria, pese a que los propietarios de esas viviendas disponen de un cuarto de basuras con sus correspondientes contenedores.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Astigarraga, 2016ko urriaren 19an

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria